

## ArtisauJazz Azoka - Vitoria-Gasteiz 20 / 07 / 2024

### PARTE-HARTZE ARAU OROKORRAK

Honen bidez, jakinarazten dizuegu uztailaren 20an, **ArtisauJazz** Vitoria-Gasteizen artisautza Azoka egingo dela. Azoka hau Gasteizko 47. Jazzaldiaren markoan egingo dugu, beraz, eskatzen diren baldintzez gain, standak apaintzeko orduan, oso garrantzitsua da jazz musika aintzat hartzea.

**Kokapena:** Plaza de los Celedones de oro (posta aurrean) Vitoria-Gasteiz (Araba)

**Ordutegia:** 10:00 -20:30 (inguruko merkataritzaren ordutegia).

Azoka VITAL azokaren standekin egiten da. (mostradoreak 2,44x0,88 neurtzen du )

Parte hartzeko interesa duzuenok jakinarazi diezaguzue mezu honi erantzunez.

<http://www.arbaso.com/ferias.asp>

### Izena emateko azken eguna ekainaren 7a izango da

Azokan parte hartzeko formularioa beteta bidaltzeaz gain, ondoko dokumentazioa ere helaraziko beharko duzue : **artisautza@arbaso.com** helbidera

- Mozkinen 4 argazkiak
- Dagokion eskualdeko eskulangile-eroldan izena emanda egotearen egiaztagiri eguneratua erantsi beharko zaio eskabide-orriari edo artisau txartela.
- Produktu kosmetikoak fabrikatzeko eta/edo inportatzeko jardueren erantzukizunpeko adierazpena (kosmetika gremioarentzat) EJZn alta emanda egotearen ziurtagiri eguneratua, artisautzari buruzko epigrafe batean.
- Poliza eta erantzukizun zibileko aseguruaren azken ordainagiria.
- Autonomoetako azken 3 ordainagirien edo lan-bizitzaren fotokopia, eskaeraren datan
- Standaren dekorazio tematikoaren zirriborroa. Gaia jazz festibal.

### Oharrak:

- Aintzat hartuko dugu azokan lanbidearen erakustaldiak egitea.
- Birsalmenta debekatuta dago, artisautzako produktuak izan zein ez.
- Proposamenik baduzue, bidali: umeentzako tailerrak, erakustaldi bereziak... Udalari aurkeztuko baitizkiegu.
- Umeentzako tailer edota erakustaldi berezi ordainduak egiten dituztenek faktura aurkeztu beharko dute kobratu ahal izateko. Faktura aurkezten ez bada, ez da ordainduko.
- Halaber, erakusketarioi gogorarazten dizuegu merkataritzaren legeak salgai dauden produktu guztiei prezioak begi-bistan jartzera behartzen duela. Salbuetsita daude bitxigileak eta larruginak eta bai 600 eurotik gorako prezioa duten produktuak ere.

Har ezazue gure agurrik beroena.

Adeitasunez Arbaso  
2024 - 05 - 2 Abadiño